



# ***HEZKUNTZA SAILA***

## **DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN**

***2020ko EPEa. BIGARREN HEZKUNTZA***

***OPE 2020. ENSEÑANZA SECUNDARIA***

***ESPEZIALITATEA / ESPECIALIDAD: FILOSOFIA***



## **1. ARIKETA: EGOERA BATEN AZTERKETA ETA DIAGNOSTIKOA** **(3 puntu)**

“**Kirikinoak neguan**” dilema, Arthur Schopenhauer (*Parerga und Paralipomena*, 1851):

"Neguko egun hotz batean, kirikino batzuk elkarrekin kuzkurtu ziren berotzeko, baina arantzekin elkarri min ematen hasi ziren heinean, sakabanatu behar izan zuten. Hala ere, hotzak berriro hurbildu zituen. Azkenean, batze eta urruntze ziklo batzuen ondoren, kirikinoek ikusi zuten emaitzarik onena lortuko zutela, elkarrengandik distantzia txiki batera mantenduz".

1. Zein irakaspen aurkezten du egileak fabula horrekin?
2. Sigmund Freudek parabola hori estimatu zuen prozesu zibilizataileari buruzko eszeptizismoa erakusteko, bere ustez neurosia sortzen duen prozesua delako. Egizu, labur eta arrazoituta, Freuden balorazioari buruzko gogoeta.
3. Schopenhauerrek fabula horren egoera saihesteko hiru modu aipatzen ditu: artea, errukia\* eta aszetismoa. Azaldu aipamen horren zentzua era ulergarriago batean.
4. Zer neurritan izan litezke baliagarriak STEAM, BIZIKASI, HEZKIDETZA... programak parabolaren egoeraren aurrean ikasleak prestatzeko? Arrazoitu erantzuna.
5. Zer esan daiteke fabula horri buruz bizi dugun garai digitaletik (sare sozialak, home office...)?

(\*) "Mitleid" alemaneraz, "compassion" ingelesez.



### **EJECICIO 1: ANÁLISIS Y DIAGNÓSTICO DE UNA SITUACIÓN (3 puntos)**

El dilema de “**Los erizos en invierno**” de Arthur Schopenhauer (*Parerga und Paralipomena, 1851*):

“En un frío día de invierno, unos cuantos erizos se acurrucaron juntos para calentarse; pero, a medida que empezaron a lastimarse unos a otros con sus espinas, se vieron obligados a dispersarse. Sin embargo, el frío los llevó nuevamente a acercarse. Al final, luego de varios ciclos de juntarse y alejarse, los erizos descubrieron que obtendrían el mejor resultado manteniéndose a una pequeña distancia uno de otro”.

1. **¿Qué enseñanza presenta el autor con esta fábula?**
2. **Sigmund Freud apreció esta parábola para mostrar su escepticismo sobre el proceso civilizador, según él un proceso generador de neurosis. De manera concisa y argumentada, expón tu reflexión sobre la valoración de Freud.**
3. **Schopenhauer menciona tres formas de evitar la situación que presenta la fábula: el arte, la compasión y el ascetismo. Expresa de una manera más explícita el sentido de la propuesta.**
4. **¿En qué medida los programas STEAM, BIZIKASI, COEDUCACIÓN... podrían ser útiles para la formación de las alumnas/os ante la situación de la parábola? Razona la respuesta.**
5. **¿Qué se puede decir sobre esta fábula desde la era digital en la que estamos (redes sociales, home office...)?**



## **2. ARIKETA: HEZKUNTZAKO ESKU-HARTZEAREKIN LOTUTAKO GAIA**

**Hurrengo testua eta horren gaia abiapuntutzat hartuta, planteatu bat edo bi saioren garapena ikasgelan, honako atal hauen bidez:**

- 1. Testuingurua: ikasgaia, maila eta gaia.**
- 2. Garapena:**
  - 2.1 Helburuak, gaitasunak eta edukiak.**
  - 2.2 Metodologia, baliabideak eta jarduerak.**
  - 2.3 Ebaluazioa: irizpideak eta tresnak.**

“Zientzia giza ahaleginik gizatiarrenaren emaitza zuzena da, gu askatzearena, alegia (...) Zientziak ez du autoritaterik. Ez da emandakoaren, datuen, behaketen produktu magikoa. Ez da benetako ebanjelioa. Gure ahaleginen eta akatsen emaitza da. Zu eta biok gara zientzia ahal dugun hobekien egiten dugunak. Zu eta biok gara horren erantzuleak (...) Bonba atomikoak (eta, beharbada, baita "energia nuklearraren erabilera baketsua" deiturikoa ere, zeinaren ondorioak okerragoak ere izan baitaitezke epe luzera) erakutsi digu, nire ustez, zientziaren gurtza azalekoa dela, gure "naturaren domeinu tresna" gisa: erakutsi digu domeinu hori, kontrol hori, natura suntsitzeko gai dela, eta gu erabat esklabo bihurtzeko gai, aske bihurtzeko baino, lehenago ezabatzen ez bagaitu. Eta jakintzagatik hiltzea merezi duen arren, ez du botereagatik hiltzea merezi (...) Hau guztia oso errepikatuta egon daiteke, baina noizean behin esan behar da. Lehen Mundu Gerrak ez zuen soilik jakintzaren errepublika suntsitu; arrazionalismoaren zientzia eta tradizioa suntsitzeko zorian egon zen, zientzia teknikoa, instrumentala, egin zuelako. Gero eta espezializazio handiagoa ekarri zuen, eta zientziatik aldendu zituen benetako erabiltzaile izan behar zutenak: zaletasun handikoa, jakinduriaren maitalea, herritar arrunta, arduratsua eta jakiteko irrika duena. Honek guztiak okerrera egin zuen Bigarren Mundu Gerrarekin eta bonbarekin. Horregatik esan behar dira berriro gauza horiek. Izan ere, atlantikoko gure demokraziak ezin dira zientziarik gabe bizi. Haren funtsezko printzipioa – sufrimendua murrizten laguntzeaz gain – egia bilatzea da”.

*“Errealismoa eta zientziaren helburua”* POPPER, Karl. Editorial Tecnos, 2011



## **EJERCICIO 2: CUESTIÓN RELACIONADA CON LA INTERVENCIÓN EDUCATIVA (4 puntos)**

**Tomando como punto de partida el siguiente texto y su tema, plantea el desarrollo de una o dos sesiones en el aula, mediante los siguientes apartados:**

- 1. Contextualización: asignatura, nivel y tema.**
- 2. Desarrollo:**
  - 2.1 Objetivos, competencias y contenidos.**
  - 2.2 Metodología, recursos y actividades.**
  - 2.3 Evaluación: criterios e instrumentos.**

La ciencia es el resultado directo del más humano de los esfuerzos humanos, el de liberarnos (...) La ciencia no tiene autoridad. No es el producto mágico de lo dado, los datos, las observaciones. No es un evangelio de verdad. Es el resultado de nuestros propios esfuerzos y errores. Somos usted y yo los que hacemos la ciencia lo mejor que podemos. Somos usted y yo los que somos responsables de ella (...) La bomba atómica (y posiblemente también el llamado “uso pacífico de la energía nuclear” cuyas consecuencias pueden ser incluso peores a largo plazo) nos ha mostrado, pienso yo, la superficialidad del culto a la ciencia como un “instrumento” de nuestro “dominio de la naturaleza”: nos ha mostrado que este dominio, este control, es capaz de autodestruirse y es más capaz de esclavizarnos que de hacernos libres, si no nos elimina por completo. Y aunque merece la pena morir por el conocimiento, no merece la pena morir por el poder (...) Todo esto puede estar muy trillado. Pero hay que decirlo de vez en cuando. La Primera Guerra Mundial no sólo destruyó la república del saber; estuvo a punto de destruir la ciencia y la tradición del racionalismo, porque hizo a la ciencia técnica, instrumental. Llevó a una especialización creciente y apartó de la ciencia a quienes tendrían que ser sus verdaderos usuarios: el aficionado, el amante de la sabiduría, el ciudadano corriente, responsable, que tiene un deseo de saber. Todo esto empeoró mucho con la Segunda Guerra Mundial y la bomba. Por eso hay que volver a decir estas cosas. Porque nuestras democracias atlánticas no pueden vivir sin ciencia. Su principio fundamental – aparte de ayudar a reducir el sufrimiento – es la verdad.

*“Realismo y el objetivo de la ciencia” POPPER, Karl. Editorial Tecnos, 2011.*



### 3. ARIKETA: TESTU IRUZKINA (3 puntu)

**Idatzi disertazio bat testuaren tesia eztabaidatuz, eta egilearen pentsamenduan kokatu. Azaldu Nietzscheren tesiaren aldeko eta aurkako argudioak. Azkenik, egizu zure gogoeta gaiari buruz. (400 hitz gehienez)**

Izpirituaren hiru eraldakuntzez mintzatuko natzaizue: izpiritua nola gamelu bihurtzen den, eta gamelua lehoi, eta lehoia, azkenean, haur. Zer da astuna?, honela galdetzen du zama-izpirituak, eta belaunikatu egiten da, gamelua bezala, eta ongi zama dezaten nahi du. Ez al da umiliatzea norberaren harrokeriari min egiteko? Norberaren jakituriaz trufatzeko norberaren ergelkeria distiraraztea? Gauza horiekin guztiekin, astunenekin, zama-izpiritua kargatzen du, basamortuan zamaturik dabilen gameluaren gisara, horrela dabil bera ere basamortuan barna. Baina basamorturik bakartienean gertatzen da bigarren eraldakuntza: lehoi bihurtzen da hemen izpiritua, askatasuna eskuratu nahi du eta bere basamortuan jaun izan. Bere azken jauna bilatzen du hemen: beraren eta bere azken jainkoaren etsai izan nahi du, garaipena lortzeko herensuge handiarekin borroka egin nahi du. Zein da izpirituak aurrerantzean jaun eta jainko deitu nahi ez duen herensuge handi hori? "Behar duk" deritzo herensuge handiari. Baina lehoiaren izpirituak "nahi diat" esaten du. Balio berriak sortzeko lehoia ez da oraindik gai: gehiago da gai askatasuna pizteko, sormen berri bati bide emateko. Lehoiaren botereak badu gaitasun hori. Askatasuna sortzeko eta betebeharraren aurrean ezetz sakratua esateko; horretarako, ene senideok, lehoia behar da. Baina esadazue, ene senideok, zer egin lezake haurrak, lehoiak berak ere egin ahal izan ez duenik? Zergatik bihurtu behar du lehoi harrapakariak haur? Errugabetasuna da haurra, eta ahazmendua, haste berri bat, jolas bat, bere baitan biraka dabilen gurpil bat, lehen mugimendu bat, baietz esate sakratu bat. Izpirituaren hiru eraldakuntza aipatu dizkizuet: izpiritua nola gamelu bihurtu zen, eta gamelua lehoi, eta lehoia, azkenik, haur. (testu egokitua)

*"Honela mintzatu zen Zaratustra"* NIETZSCHE, Friedrich. Klasikoak, S.A., 1992



### **EJERCICIO 3: COMENTARIO DE TEXTO (3 puntos)**

**Elabora una disertación discutiendo la tesis del texto, y sitúalo en el pensamiento del autor. Expón argumentos a favor y en contra de la tesis de Nietzsche. Finalmente, expón tu reflexión personal al respecto. (400 palabras como máximo)**

Tres transformaciones del espíritu os menciono: cómo el espíritu se convierte en camello, y el camello en león, y el león, por fin, en niño. ¿Qué es pesado?, así pregunta el espíritu de carga, y se arrodilla, igual que el camello, y quiere que lo carguen bien. ¿Acaso no es humillarse para hacer daño a la propia soberbia? ¿Hacer brillar la propia tontería para burlarse de la propia sabiduría? Con todas estas cosas, las más pesadas de todas, se grava al espíritu de carga: semejante al camello que corre al desierto con su carga, así corre él a su desierto. Pero en lo más solitario del desierto tiene lugar la segunda transformación: en león se transforma aquí el espíritu, quiere conquistar su libertad como se conquista una presa y ser señor en su propio desierto. Aquí busca a su último señor: quiere convertirse en enemigo de él y de su último dios, con el gran dragón quiere pelear para conseguir la victoria. ¿Quién es el gran dragón, al que el espíritu no quiere seguir llamando señor ni dios? "Tú debes" se llama el gran dragón. Pero el espíritu del león dice "yo quiero". Crear valores nuevos tampoco el león es aún capaz de hacerlo: más crearse libertad para un nuevo crear, eso sí es capaz de hacerlo el poder del león. Crearse libertad y un no santo incluso frente al deber: para ello, hermanos míos, es preciso el león. Pero decidme, hermanos míos, ¿qué es capaz de hacer el niño que ni siquiera el león ha podido hacer? ¿Por qué el león tiene que convertirse todavía en niño? Inocencia es el niño, y olvido, un nuevo comienzo, un juego, una rueda que se mueve por sí misma, un primer movimiento, un santo decir sí. Tres transformaciones del espíritu os menciono: cómo el espíritu se convirtió en camello, y el camello en león, y el león, por fin, en niño. (texto adaptado)

*“Así habló Zaratustra”* NIETZSCHE, Friedrich. Alianza editorial, 2011